

NAZIONALISMOAK, ESENTZIALISMOAK ETA BESTE

“...Mas assim é toda a vida; assim, pelo menos, é aquele sistema de vida particular a que no geral se chama civilização. A civilização consiste em dar a qualquer coisa um nome que lhe não compete, e depois sonhar sobre o resultado. E realmente o nome falso e o sonho verdadeiro criam uma nova realidade. O objecto torna-se realmente outro, porque o tornámos outro...”

(Fernando Pessoa. “Livro do Desassossego”)

Pozgarria-edo da ikustea nazionalismoari buruzko kezka teorikoa, atzera ere, agertzen ari dela gurean. Filosofia fakultateetatik igaro garen hainbati harridura atsegina sortu digu Ulises Moulines Zientziaren Filosofiaren irakasle itzal handikoa nazionalismoari buruzko solas akademikoan murgilduta ikustek, zertarako eta nazionalismoaren defentsa kartsua egiteko, Moulines bera ere nazionalista azalduz harrokiro.

Venezuelar filosofoaren igerialdi hauek ez dira herenegunekoak (2001ekoa da bere “Manifestu nazionalista”); hala ere, oraintsu jakin izan dugu batzuk horren berri, JAKIN aldizkariaren 162. zenbakiak kontatu digunean.

Nola lirikarako, hala nazionalista azaltzeko garai txarrak direlakoan egon gara. Hortaz, estimatzekoa begitantzen zaigu Moulines bezalako norbait bidelagun edo aliatu agertzea. Zeren nik ez dakit nazionalista garen ala ez; badakit, baina, gure identitate kolektiboa euskalduntasunean eta euskal herritartasunean ebazten dugunok nazionalistatzat gauzkatela beste batzuek.

Izen kontua ei da guztia. Tira, izen kontua eta amets kontua ere, esango zuen PESSOAK. Nazionalismoak – edo nazionalismo hitzak- duen izen txarra aspaldikoa da eta ez zaio etorri hautu ideologiko erreakzionarioetatik bakarrik. Esate baterako, George Orwellek nazionalismoa eta abertzaletasuna (“patriotism”) bereizi zituen; lehena txarra omen, eta bigarrena ona. Baina nazionalismoaren deskreditua, zaharra den arren, gaurko egunetaraino heldu zaigu eta orainean bizi da, ondotxo dakigun bezala.

Moulinesek lurretik bota du hitzaren ohiko karga peioratibo guztia: harentzat nazionalismoa gauza ona da, bai proposamen teoriko-kontzeptuala den heinean eta bai dituen ondorio etikoen aldetik ere. Irudipena daukat esanahien subertsio honek aukera polit berriak zabal ditzakeela etorkizunean. Geroak esango du.

Horrez gainera, Moulinesen Manifestuak beste gauza interesgarri bat ekarri du: korronte ezagun bateko nazionalismo espainol aitortugabearen parrokiario baten koherentziarik eza (eta ahalkegabekeria ere) agerian utzi izana, nahiz hau ez den gauza berri-berria. Aurelio Arteta, napar filosofoa izan da Moulinesen kontra altxatu den espainiar sumindua. Eztabaida formalki maila akademikoaren mugen barruan gertatu bada ere, nabarmen geratu da Artetaren antiakademizismoa gai hura ukitzean. Horixe, behintzat, ondorioztatu ahal dugu eztabaidaren jatorrizko testuak zuzenki ezagutu barik ere, JAKIN aldizkarian Josu Txapar-tiren errezentsioa eta Iñaki Sotoren elkarrizketa irakurrita.

Artetaren elari espainiar nazioaren esentzialismo ukaezina dario, nahiz eta esentzialista izateagatik deskalifikazten dituz-

ten (Artetak berak eta beste batzuek) “nazionalismo periferiko” deritzenak. Arazo ezagun eta zahar baten aurrean gaude. Gorago hitz-erdika aipatu dugun nazionalismo espainolaren korranteak (Euskal nazioaren ukatzaile eta euskal nazionalismoaren gaitzesle den hark) ez du, noski, bere burua nazionalistatzat. Baina, guztiarekin ere, bere izaeraren ukazioa ez da korrante haren ezaugarri harrigarriena, beste hau baizik: norberarenak bestetartzeko duen ahalmen neurrigabea. Esentzialista izatea egozten digute besteoi, inon esentzialismorik ikusgarri baldin badago euren baitan delarik.

Jakina da nazioaren kontzeptuaren bi paradigma klasikoak zein diren: etnikoa eta zibikoa. Lehena esentzialista, erromantikoa, artifiziala eta atzerakoia, normalki Alemaniako tradizioari lotua; bigarrena demokratikoa, errepublikarra, herritarren borondatean oinarritua, aurrerakoia, eta Frantziako tradizioari lotua.

Bada, Joxe Azurmendik “Espainiaren arimaz” bere entseguan maisukiro azaldu duenez, nazio espainiarraren bindikatzaile intelektualak esentzialismoaren ildoan mugitu izan dira erromantizismoaz geroztik. Gainera, ongi erakutsi du Azurmendik esentzialismo hura fenomeno espainiarra dela eta ez alemana, “Volkgeist” kontzeptuaren mutazio bat edo gaizkiu-lertu bat dela medio.

Azurmendiren analisia ez da gaurko egunetaraino heltzen, baina bistan da Ortegaren (Azurmendik hain polito aztertzen duen Ortega horren) itzala ez dela suntsitu. Ez. Oso bizirik egon da, eta esan daiteke gorpuztu ere egin zela Diputatuen Kongresuan espianiar konstituzioaren idatzi-lanen garai hartan. Honi buruz, biziki gomendagarria da Xacobe Bastida Zuzenbideko irakaslearen “La nación española y el nacionalismo constitucional” liburua, duela hamar urte argitaratua. Bastidaren tesia, gutxi gorabehera, honako hau da: 1978ko konstituzioak ezartzen edo formulatzen du estatu-nazionalismo bat, zeinak nazioaren eredu jakin bat sorrarazten baitu; nazioaren eredu hori, esaten denaz bestera, edozein joera demokratiko eta inte-

gratzaitetik oso aldendua dagoen esentzialismoan errotutako eredu da.

Eta halaxe da. Espainiar nazioaren esentzialismoak badu adierazpen juridikoa ere, eta goi mailekoa gainera. Gogoratu, Espainiako lege goreneko 2. artikulua dioela, ezen “Konstituzioa Espainiako nazioaren batasun zatiezinean oinarritzen dela...”; hots, konstituzioak nazioan hartzen duela funtsa, ez alderantziz. Beraz, nazioaren kontzeptu zibiko-demokratikoaren guztiz alderantzizkoa, azken honentzat estatua nazioa baino lehenagokoa baita.

Baina kuriosoena zera da, batzuek (ez gutxi) duten enpeinua konstituzioan datzan nazioaren kontzeptu esentzialista hura nazioaren kontzeptu zibiko-demokratiko lez aurkezteko. Enpeinu hori gaurko egunetaraino iristen da. Bastidaren hitzetan: “...*Ayer los constituyentes, hoy el universo intelectual de la academia se empeñan con bóvida insistencia en la adscripción de la nación española a la categoría de nación política, valiéndose en no pocas ocasiones de la misma fraseología orteguiana con que aquellos aliñaron su discurso...*”. Eta jokabide gezurti honen arrazoia argia da: “...*La razón que explica esta paladina distorsión es en lo sustancial coincidente con la que encontramos en sede constituyente. Con el ansia de legitimación de una realidad carente de apoyo carismático volvemos a toparnos*”. Eta pixka bat aurrerago: “...*la voluntad ciudadana tiene una resonancia democrática que resulta de mucho provecho a la hora de ocultar el objetivismo histórico que en realidad se mantiene...*”.

Kontzeptuak argitze aldera: Bastidak darabilen “*nazio politiko*” terminoa Meineckeren “*nazio politiko/nazio kultural*” oposizioan oinarritzen da, eta, *mutatis mutandis*, guk aipatu dugun nazioaren kontzeptu zibikoaren baliokidea da. Berdin ere, “*objektibismoa*” aipatzen duenean betiko bi paradigma kontrajarrietako bati dagokio X. Bastida; paradigma etnikoari, alegia (hortaz, nazioaren objektibismoa esentzialismoa da fun-

tsean; kontrara, subjektibismoak subjektu baten –hots, herri baten edo komunitate politiko eratu baten- borondatea seinatzen du nazioaren sortzaile gisa).

Espainiar nazionalismoaren korrante ideologiko esentzialista bati buruz jardun dugu.....Baina... guk? Zer esan ahal dugu espainiar aitortugabeko esentzialista horiek guri leporazten diguten esentzialismoaz? Nire ustez ukaezina da garai batean esentzialismoak (etnizismoak) zinezko pisua izan duela gurean, eta haren arrastoak egongo dira hortik nonbait bizirik; hala ere, ez dirudi, inondik ere, gaur egungo jarrera gailena denik. Gure belaunaldikook oso gaztetxotan baitaratu genuen Euskal Herria ez dela herririk onena, euskara ez dela hizkuntzarik onena; gureak direla bata eta bestea. Ez gehiago. Eta ez gutxiago. Eta, hori baino aurrerago joanda, egia deritzot Josu Txapartegik dioenari: “...*Euskal abertzaletasunaren zati bizienak aspaldi egin zituen bakeak Europako tradizio liberal-errepublikar-marxistekin, pentsamendu horien elementu demokratikoenak barneratuz....*”.

Duela urte mordotxo bat Joxe Azurmendik (Berriz ere gure Joxe Azurmendik) azaldu zigun gure txikitasuna onartzearen beharra; eta lagundu zigun gure txikiaren maitale izaten. Berrogei urte joan zaizkigu haren Manifestu Atzeratuak lehene-goz argia ikusi zuenetik. Berrogei urte. Bertan utzi zuen idatzirik beste irakaspen bat: Bai, gauza gutxi dugu (ez Marxik, ez 1789rik,... ez halakorik) Baina zer gertatuko litzateke ezertxo ere ez bagenu? “...asmatu diguten Gernikako arbola” hura ere ez bagenu? Noren aurrean eta zergatik justifikatu beharko genuke libre izateko nahia?.....Ez dakit nazioaren –eta, nahi bada, nazionalismoaren- paradigma zibiko-demokratikoaren formulazio ederragorik dagoen. Nik gustokoa dut.

Eta berrikitan agertu zaizkigu beste formulazio ausart batzuk, Azurmendirenarekin kointzidentzia gogoangarriak dituztenak. Santi Leoné iruindar historialariak historiari erdeinu egitea proposatzen digu. Esentzialismoaren antipodetan Leonék

onartzen du, bete-betea, paradigma zibiko edo boluntarista-
ren postulatu gogorrena: nazio guztiak asmatuak dira, baita
euskal nazioa ere (hortaz Leonéren lanaren goiburua: *“Euskal
Herri imajinario baten alde”*). Baina asmatua izan delako, hain
zuzen ere, existitzen da; geure burua asmatu dugulako existi-
tzen gara; gure izaera kolektiboa gure nahiak du eratzen. Era-
tzen, ez eratu. Asmazio hori etengabea baita, eta eguneroko
jardunean baitugu egiten.

Aurreko hitzetan Azurmendiren oihartzuna dantzugu: *“Herri
bat garela eta naziorik garela, ez diogu inori agertuko azterke-
ta txorrotxak herritasunaz eta naziotasunaz eginez, nazio be-
zala jokatzuz baizik. Praxiaz. Kontzeptuak eta interpretazio
historikoak nahi den bezala bihur litezke. Bestalde, nazio, na-
zionalitate eta beste kontzeptuak herrien praxi baztuk esplika-
tzeko asmatu dira”*.

Jabier Erize